

FA BEMOL (EDO BIZITZARENA)

Ander Audikana

Gasteiz, 17 urte

Inork ez nau entzungo existitzen ez naizenez gero.

Eternitatea nere bila ari da segunduaren peripezian.

Erritmoak noraezera narama, hobe orduan, melodiari lotzera.

Utopia dut lagun. Jaboi ponpak musukatzen zalea naiz.

Mila dira nere zaporeak, zugar ere banago, beraz, mila eta bat.

Beti gertu ibili dabilkit polizia, eta ez nolana hikoia, bere izena: logika.

Nere oihartzunak unibertsoa astindu zuen noiz-pait;

eta harrezkero dilindaka dirau, noiz hilko naizen zai.

Itsasoan jaioa omen naiz. Itsasoa seme duen non-baitera noa.

Platonek, behin iraindu egin ninduen,

Descartesek baieztatu, *cogito, ergo sum*.

Eguzkiak ematen dizkizuen bi gauzetako bat nauzue ni.

Konkatenatzen naizenean, deitzen naute musika,
beste batzuek ordea, aukera-aukeran, nahiago his-
toria.

Inork ez ninduen deitu, pianoaren eskalan tokirik
ez.

Ez ditut bonba atomikoak atsegin, eta gainera
edozein gerratek murrizten nau.

Izakiaren maisu, jainkoaren ikasle.

Ezinezkoa naizela aurpegiratzaz azalpen bila datoz-
kit,

harik eta belarri aldetik itzaltzen natzaien arte.

Nahiko nuke nere izana ulertzera paratuko ez bali-
ra,

egin dezatela ardien antzera jan, lo eta bee.

Zaindu nazazue, osterantzean, bestela, ezer ere ez.

Maite ditut mugaldeak, zuen herrienak ez badira,
bitarteetan sortzen naiz ni, ur gaziak gozoa kolpa-
tzerakoan.

Gustatuko litzaidake zeozer berria esatea,
(erantzun bat, lasaitasun hitzak, animoak, nerega-
nako gonbitea)

berria den edozer,

eta hemen ari naiz, betiko tankeran,

barkamen eske.